



ITURENGO UDALA
(Nafarroa)
31745

Jagoba Manterola Ruiz
Mikel Gereka Zelaia
José María Alzuri Vertiz
Carmelo Ayoroa Hualde
María Izaskun Altxu Ariztegi
Javier Bereau Miquelarena

2017ko urtarrilaren 24an, 19:00ak direnean, Ohiko Osoko Bilkuran elkartzen dira Iturengo Herriko Etxean ondoan aipatzen diren zinegotziak, legeak eskatzen duen bezala deitu eta gero. María José Bereau Baleztena — Alkatea— da bilkurako burua eta idazkaria, Miguel José Belarra Tellechea. Gai Zerrendako gai hauek aztertu dira:

1. AURREKO BILKURAKO AKTA ONETSI.

Udalburuak galdetu du zinegotziren batek oharren bat egin nahi ote dion deialdiarekin batera banatu zen aurreko Bilkurako aktari. Inork ez du azalpenik egin eta aho batez onartu da akta.

2. ARAU SUBSIDIARIOEN ALDAKETA. 3 POLIGONOKO 11 ETA 12 PARTZELAK (AURTITZ).

2014ko irailaren 18ko Osoko Bilkuran eman zitzaion hasierako onespina Planeamendurako Arau Subsidiarioen antolamenduko egiturazko determinazioetako aldaketari, 3 poligonoko 11 eta 12 partzei dagokiona. J.L.E.A., M.M.U. eta I.D.A. dira espedientearen sustatzaileak.

Espedientea jendaurrean egon zen (2014-10-09ko NAO) eta ez zuen inork erreklamaziorik aurkeztu.

Halaber, Nafarroako Gobernuak eman zuen txosten orokorra (0009-OT04-2014-000042 espedientea), onetsitako agirian zenbait puntu aldatu, argitu eta osatzeko eskatuz.

Sustatzaileek agiria aldatua aurkeztu zuten eta Udal arkitekto aholkulariek aldeko txostena eman.

Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legeko 80, 79, 70 eta 71. artikuluekin bat etorritz, aho batez erabakitzen da:

1. Behin-behineko onespina ematea Planeamendurako Arau Subsidiarioen aldaketari.
2. Espedientea igortzea Landa Garapena, Ingurumena eta Toki Administrazioiko Departamentura, behin betiko onetsi dezala eskatuz.
3. Erabaki hau jakinaraztea sustatzaileei.

3. XEHETASUN AZTERLANA. 3 POLIGONOKO 81 PARTZELA (AURTITZ).

Aurtizko Auzoan dagoen 3 poligonoko 81 partzelako lerrokadurak aldatzeko xehetasun azterlana aurkeztu zuen T.A.S.k, igogailua jarri ahal izateko *Eguzkialdea* etxeari atxikia. Espedientean ez da hirigintza-aprobetxamendua handitzen, irisgarritasun unibertsala bermatzeko lanak egitearen ondorioz handituko delako eraikia (Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legeko 62.2 artikulua). Hasierako onespina eman zion



ITURENGO UDALA
(Nafarroa)
31745

Iturengo alkateak 2016ko azaroaren 21eko Ebazpenean; espedientea jendaurrean egon zen (2016-11-30eko NAO) eta ez zen erreklamaziorik aurkeztu.

35/2002 Foru Legeko 74 eta 76. artikuluei jarraituz, aho batez erabakitzen da:

1. Behin betiko onestea 3 poligonoko 81 partzelako lerrokadurak aldatzeko xehetasun azterlana.

2. Erabaki hau argitaratzea Nafarroako Aldizkari Ofizialean.

3. Nafarroako Gobernuari bidaltzea onetsi den agiriaren kopia bat.

4. HIRIGINTZA HITZARMENAK. 1 POLIGONOKO 12 ETA 220 PARTZELAK (LATSAGA).

1. Aztertu da kudeaketako hirigintza hitzarmenaren zirriborroa, 1 poligonoko 12 eta 220 partzelei dagokien lagapenak eta urbanizazioa finkatzeko egina. I.A.M. eta L.M.A.V. dira espedientearen sustatzaileak. Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legeko 25. artikuluan ezarritakoari jarraituz, aho batez erabakitzen da:

1. Hasierako onespina ematea hirigintza hitzarmenari, espedientea abiarazteko baizik ez.

2. Akordio hau argitaratzea Nafarroako Aldizkari Ofizialean, hogeit egun balioduneko epean jendaurrean egoteko.

2. Jarraian, aztertu da planeamenduko hirigintza hitzarmenaren zirriborroa, 1 poligonoko 220 partzelari dagokiona. L.M.A.V. da espedientearen sustatzailea. Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legeko 24. artikuluan ezarritakoari jarraituz, aho batez erabakitzen da:

1. Hasierako onespina ematea hirigintza hitzarmenari, espedientea abiarazteko baizik ez.

2. Akordio hau argitaratzea Nafarroako Aldizkari Ofizialean, hogeit egun balioduneko epean jendaurrean egoteko.

5. LURSAIL KOMUNALAREN OKUPAZIOA. 3 POLIGONOKO 126 PARTZELA.

2015eko urriaren 29ko Osoko Bilkuran erabaki zen hasiera batean onestea 3 poligonoko 126 lurzatiko 50 metro lineal okupatzea M.A.E.B.k eraiki nahi duen ur-sarearekin. Helburua da Bizarronekoborda uraz hornitzea. Ezinbestekoa den baldintza administratiboan plegua ere onetsi zen. Plegu horren 4. baldintza aldatu zen 2016ko maiatzaren 2ko Osoko Bilkuran. Okupazioari epe mugatu bat jarri behar zaiola kontuan izanik, aho batez erabakitzen da:

1. Pleguko 3. baldintzari gehitzea paragrafo bat. Ondorioz, 30 urteko epea onetsi da, 10 urteko aldietan luzatu ahalko dena.



ITURENGO UDALA
(Nafarroa)
31745

2. Herri-lurren Atalari jakinaraztea akordio hau.

6. PASABIDEAK ARAUTZEN DITUEN ODENANTZA.

J.J.E.V.k lizentzia eskatu zuen pasabidea (badoa) jartzeko *Apeztegia* etxeko garajea. Gaia arautu gabe dagoenez Iturenen, ordenantza ereduak aztertu dira. Era berean, aztertu da ordenantza onesteko prozedura. Prozedurari hasiera emateko bete behar da Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 133 artikulua: *“legearen edo erregelamenduaren proiektua edo aurreproiektua prestatu baino lehen, kontsulta publiko bat bideratuko da administrazio eskudunaren web-atariaren bitartez, eta jasoko da zer iritziz duten etorkizuneko arauaren eraginpean gerta litezkeen subjektuek eta erakunderik ordezkagarrienek puntu hauei buruz: a) Ekimenarekin konpondu nahi diren arazoak. b) Arau hori onestea beharrezko eta egoki den. c) Arauaren helburuak. d) Izan litezkeen bestelako aukera erregulatzaile eta ez-erregulatzaileak.”*

Gaia eztabaidatu ondoren, aho batez erabakitzen da:

1. Pasabideen ordenantza onesteko prozedura ez jartzea martxan, arrazoi hauengatik: ez du hiritargoak eskatzen, eskaera bakarra dago; ez da arau haren beharrik ikusten herrian; ez da ikusten ordenantzaren onespina justifikatuko lukeen onura orokorrik.

2. E. jaunari jakinaraztea akordio hau.

Carmelo Ayoroa bilerara sartu egin da.

7. MEDIKUAREN ETXEA.

2016ko abenduaren 7an bilera egin zen Zubietako eta Elgorriagako Udal ordezkariekin Medikuen Etxeari buruz hitz egiteko. Bilera hartan irakurri zen Toki Administrazioari Zuzendaritza Nagusiko letratuak egindako txostena eraikinaren jabetzari buruz. Txostenak ondorioztatzen du Iturengo Udalarena dela eraikin osoaren jabetza. Gaia eztabaidatu da eta, hontuan izanik Zubietako eta Elgorriagako Udalek parte hartu zutela bere garaian etxea eraikitzekeo gastuetan, aho batez erabakitzen da:

1. Medikuen etxearen jabetza portzentai hauek onestea: Iturengo Udala % 71,37aren jabe; Zubietako Udala % 21,63aren jabe; Elgorriagako Udala % 7aren jabe. Espedientearen barruan daude portzentaien kontuak ateratzeko erabilitako irizpideak.

2. Portzentai horiek erabiltzea errentamentutik hartu den diru-poltsaren banaketa egiteko.

3. Mahai gainean uztea etxebizitzaren erabilerari buruzko erabakia (errentan ematea ala saltzea); etxearen egoera aztertuko da lehendabizi. Dena den, A. anaiei jakinaraziko zaie erabilera aldatzeko asmoa duela Udalak.

4. Zubietako eta Elgorriagako Udalei jakinaraztea akordio hau, portzentaiak onetsi ditzaten haien Osoko Bilkuretan.

8. SUTARAKO EGUR LOTEAK.



ITURENGO UDALA
(Nafarroa)
31745

Arrantzelai parajeko egur loteak etxean entregatzeko aurrekontuak eskatu ziren eta enprekin izandako negoziazioa kontuan izanik, aho batez erabakitzen da:

1. Egur loteak atera eta entregatzeko lanak ematea EGURLAN enpresari, tonako 28 eurotan (gehi BEZa).
2. Erabaki hau jakinaraztea esleipendunari eta Pako Altzuri SLri.
3. Esleipenaren eraginkortasuna etenda geldituko da 10 egun naturaleko epean (Kontratu publikoei buruzko 6/2006 Foru Legearen 93. artikulua).

9. BASO-APROBETXAMENDUA.

Udalbatzak, behar bezala baimendurik, aho batez erabakitzen du:

1. Salgai jartzea oihan lotearen aprobetxamendua, gutun-azal itxiaren bidezko enkante irekian. *Amezti* eta *Asurdi* alderdietan dago lotea (503. eta 504. zenbakiak Nafarroako Onura Publikoko Mendien Katalogoan) eta hauek dira haren ezaugarriak: lote bakarra; 3.100 haritz amerikar, 620 metro kubiko enbor txiki/egur egiten eta 3.100 euro balio dutenak, BEZa kanpo.

2. Onestea enkantea arautzen duen baldintzen orria.

10. 2017KO AURREKONTUA ETA PLANTILLA ORGANIKOA.

2017ko aurrekontua aztertu ondoren, aho batez erabakitzen da:

1. Hasierako onespina ematea 2017ko aurrekontu orokor eta bakarrari.
2. Jendaurrean jartzea espedientea 15 eguneko epean, nahi duenak aztertu eta erreklamazioak aurkez ditzan.

Hau da aurrekontuaren laburpena:

DIRUSARRERAK:		EUROAK
1. Kapitula.	Zuzeneko zergak:	95.147,39
2. Kapitula.	Zeharkako zergak:	12.000,00
3. Kapitula.	Tasak eta bestelako dirusarrerak:	37.211,67
4. Kapitula.	Transferentzia arruntak:	167.007,65
5. Kapitula.	Ondareko dirusarrerak:	22.897,07
7. Kapitula.	Kapital transferentziak:	37.239,05
DIRUSARRERAK GUZTIRA:		371.502,83
GASTUAK:		EUROAK



ITURENGO UDALA
(Nafarroa)
31745

1. Kapitulua.	Langileen lansariak:	69.118,68
2. Kapitulua.	Ondasun eta zerbitzuen gastuak:	106.191,05
3. Kapitulua.	Finantza-gastuak:	500,01
4. Kapitulua.	Transferentzia arruntak:	126.115,00
6. Kapitulua.	Inbertsio errealak:	60.578,09
9. Kapitulua.	Finantza-pasiboak:	9.000,00
	GASTUAK GUZTIRA:	371.502,83

Jarraian, aho batez erabakitzen da idazkariak gradua aitortzeko aurkeztutako eskaera onestea. Ondorioz, egoera berria sartuko da plantillan eta dagokion gradua ordainduko zaio 2017ko urtarrilaren 1etik aurrera.

Ostean, 2017ko plantilla organikoa aztertu ondoren, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko Foru Legearen 236. eta 271. artikuluetan ezarritakoari jarraituz, aho batez erabakitzen da:

1. Hasierako onespena ematea 2017ko plantilla organikoari.
2. Jendaurrean jartzea espedientea 15 eguneko epean, nahi duenak aztertu eta erreklamazioak aurkez ditzan.

Hau da plantillaren edukia:

Funtzionarioak

1. Idazkaria. Maila: A. Sarbidea: oposizio-lehiaketa. Zubieta eta Iturengo Udalen Batasunaren menpe. Osagarriak: bateraezintasuna % 35,00; lanpostuko osagarria % 30,50. Euskaraz jakitea: baldintza berariazkoa, 3. jakite maila (203/2001 Foru Dekretua), hizkuntz eskola ofizial batek emandako gaitasun agiria edo ofizialki balio berekotzat jotako beste titulazio bat. Egoera: hutsik.

2. Kontu-hartzailea. Maila: B. Sarbidea: oposizio-lehiaketa. Doneztebe-Santesteban, Elgorriaga, Ituren eta Zubietako Administrazio Zerbitzuen Batasunaren menpe. Osagarriak: bateraezintasuna % 35,00; lanpostuko osagarria % 19,14. Euskaraz jakitea: baldintza berariazkoa, 3. jakite maila (203/2001 Foru Dekretua), hizkuntz eskola ofizial batek emandako gaitasun agiria edo ofizialki balio berekotzat jotako beste titulazio bat. Egoera: hutsik.

3. Zerbitzu anitzetako langilea. Maila: D. Sarbidea: oposizio-lehiaketa. Zubieta eta Iturengo Udalen Batasunaren menpe. Lanpostuko osagarriak: % 12, % 20,79. Euskaraz jakitea: baldintza berariazkoa, 1. jakite maila (203/2001 Foru Dekretua), lau kurtso gaingiturik izatea hizkuntz eskola ofizial batean, edo bederatzi urrats gaingiturik Nafarroako Gobernuak antolatutako kurtsoetan. Egoera: jardunean.

Lan-kontratudun finkoak



ITURENGO UDALA
(Nafarroa)
31745

1. Administrari laguntzailea. Maila: D. Sarbidea: oposizio-lehiaketa. Zubieta eta Iturengo Udalen Batasunaren menpe. Lanpostuko osagarriak: % 12, % 25,85. Euskaraz jakitea: baldintza berariazkoa, 3. jakite maila (203/2001 Foru Dekretua), hizkuntz eskola ofizial batek emandako gaitasun agiria edo ofizialki balio berekotzat jotako beste titulazio bat. Egoera: hutsik.

Funtzionarioen izenen zerrenda

Zerbitzu anitzetako langilea: Oinatz Asensio Santesteban. Maila: D. 2. gradua. Antzinasuna: 2004/06/26.

Administrazio araubideko kontratudunen izenen zerrenda:

Idazkaria: Miguel José Belarra Tellechea. Maila: A. 4. gradua. Antzinasuna: 1992/07/01.

Kontu-hartzailea: Aitor Navarro Aristorena. Maila: B. Antzinasuna: 2013/07/15.

Lan-kontratudunen izenen zerrenda:

Administrari laguntzailea: Amaia Ochandorena Mindegua. Maila: D. Antzinasuna: 2000/11/02.

11. ZENBAIT ESKAERA.

1. I.M.M. aurkeztu zituen Aurtizko bestetako gastuen eta diru-sarrereren frogagiriak. Agiriak aztertu ondoren, aho batez erabakitzen da 2.693 euroko laguntza ematea bestak antolatutak diren batzordeari, 2016ko gastuak betetzeko.

2. F.F.O.k lizentzia eskatu zuen teilapea eraikitzeke 1. poligonoko 48. partzelaren pareko herri-bidean. Eztabaidatu ondoren, aho batez erabakitzen da eskatutakoa ukatzea herri-bidean ezin delako eraiki.

3. José María Alzuri Vertizek baimena eskatu zuen *Legargorri* parajearen erori den haritz 1 aprobetxatzeko. Mendizainak egindako balorazioa ikusi ondoren, aho batez erabakitzen da Alzuri jaunari saltzea arbola 6 eurotan.

Alzuri jauna abstenitu egin da.

4. Idazkariak irakurri du gero Komunaleko Sailak eman duen txosten berria, J.J.U.S. eta beste batzuk Jabetza Erregistroan inskribatu zuten finkari buruz (2 poligonoko 132 partzelako 1 azpiareako 1 unitatea). Bordako zoruaren jabetzari buruzkoa da txostena. Aho batez erabakitzen da trukatzeko baten aukera aztertzea.

5. Aho batez erabakitzen da 425 euroko diru-laguntza ematea AEKari *Korrikako* kilometro bat erosteko.

6. Aho batez erabakitzen da 300 euroko diru-laguntza ematea Saharaztan Elkarteari “Nafarroako Bakelekua” proiekturako.



ITURENGO UDALA
(Nafarroa)
31745

Mikel Gereka abstenitu egin da.

7. J.L.E.G.k informazioa eskatu du *Egutera* etxean hiriko argiteriko farola jartzeko. Eztabaidatu ondoren, aho batez erabakitzen da ondoko honen berri ematea E. jaunari:

- Herriko argietan enpresa pribatuek eta partikularrek egindako instalazioak Iturengo Udalak bereganatzeko udal ordenantzaren 13. artikulua dio: “[...] *Horrelako lurretan (lurzoru urbanizaezina) dauden etxebizitzak jabeek **beren kontura** egin beharko dituzte etxebizitzak herriko argiez hornitzeko obrak, instalazioak eta ekipamenduak. Betiere, aurreko artikuluetan aipatzen diren baldintza teknikoak bete beharko dituzte. Lurpeko hodiak, ahal dela, bide ertzetan edo lurzatien mugetan jarriko dituzte, lurzoru urbanizaezina ez ukitzeko.*

Eraikin bakoitzeko argi puntu bakarra instalatuko da, zenbat etxebizitza dituen kontuan hartu gabe.

Iturengo Udalak dirulaguntza emanen du artikulua honetan ezarritako baldintzak betetzen dituzten argi puntuen argindar kontsumorako.”

- Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legeko 116.5 artikulua dio: “*Zerbitzuen ekipamenduak eta etxebizitzetarako sarbidea jabeen esku geldituko dira, beraiek egin beharko baitituzte, autonomoki eta bakarka, **lehendik dauden azpiegituretako hartuneetatik**, batere aldatu gabe lurzoru urbanizaezina babestu edo gorde behar izateko balioak eta arrazoiak, eta lurzoru horren babes arauak errespetatuta.*”

8. Aho batez erabakitzen da J.A.E.ri baimena ematea Amezti bideko kurba bat garbitzeko.

9. P.M.E.k eta P.M.E.k baimena eskatu zuten *Sarobe* parajeko 2 zain-irauli eta *Ibirta* parajearen erori den adarra aprobetxatzeko. Mendizainak egindako txostena eta balorazioa ikusi ondoren, aho batez erabakitzen da M. jaunei saltzea *Ibirtako* adarra 6 eurotan. *Sarobe* parajekoak salmentatik kanpo uzten dira, egoera arriskutsuan daudelako.

10. F.J.A.I.k proposamena aurkeztu zuen ur-depositu berriko bidetik sarbidea eraikitzeko *Aldapa Borda* aldera: Udalak bidea irekitzearen gastua ordainduko balu, berak ordainduko luke hormigoia. Gaia eztabaidatu ondoren, aho batez erabakitzen da proposamena errefusatzeko ez baita ikusten onartzea justifikatuko lukeen onura publikorik.

11. F.E.A.k baimena eskatu zuen ardiak purinak botatzeko komunalean. Udalbatzak oniritzia eman zuen 3 poligonoko 282 B partzelan botatzeko, beharrezkoak diren baimenak lortu eta gero. Nafarroako Gobernuak Ingurune Naturaleko Zerbitzuak baimena eman du, salbuespen gisara eta baldintzekin. Gaia eztabaidatu ondoren, aho batez erabakitzen da baimena ematea E. jaunari purinak botatzeko 3 poligonoko 282 B partzelan, Ingurune Naturaleko Zerbitzuak jartzen dituen betebeharrak konplitzeko baldintzarekin.

12. ALKATETZAREN EBAZPENAK.

Alkateak emandako ebazpen hauen jakinaren gainean geratzen da Udalbatza:



ITURENGO UDALA
(Nafarroa)
31745

- 2016ko azaroaren 9koa, Nafarroako Gobernuko Ingurune Naturalaren Zerbitzuari baimena eman ziona, sasiak kentzeko lanak egiteko *Eluspuro* eta *Berango* parajeetan.
- 2016ko azaroaren 11koa, *Aurtizko Ostatuko* ordutegia luzatu zuena azaroaren 12a eta 13rako.
- 2016ko azaroaren 16koa, bi familiako etxebizitza eraikitzeko lizentzia eman ziena I.A.E., I.Z.L., J.A.O. eta M.C.E.E.ri.
- 2016ko azaroaren 21koa, Aurtizko Auzoan dagoen 3 poligonoko 81 partzelako lerrokadurak aldatzeko xehetasun azterlana hasiera batean onetsi zuena. T.A.S. da sustatzailea eta helburua da igogailua jarri ahal izatea *Eguzkialdea* etxeari atxikia.
- 2016ko azaroaren 23koa, Altsasuko Udalak atxilotuen senitartekoek eta Altsasuko herritarrek deitutako manifestazioarekin bat egitea erabaki zuena.
- 2016ko azaroaren 28koa, K.E.S.S.i lizentzia eman ziona 12 metro karratuko txakurtegia eraikitzeko 3 poligonoko 286 partzelan.
- 2016ko abenduaren 19koa, M.J.F.O.ri lizentzia eman ziona, estalkia eraikitzeko *Asierrenea* etxeari atxikia (1 poligonoko 46 partzela).
- 2016ko abenduaren 19koa, J.M.G.E.ri lizentzia eman ziona *Mikelenea* etxeko teilatua eraberritzeko.

13. HERRIKO GAIEI BURUZKO INFORMAZIOA.

Agiri hauen jakinaren gainean geratzen da Udalbatza: Nafarroako Gobernura bidali diren baso-aprobetxamenduko baimen eskaerak —B.U.na eta J.M.S.na—; Herri eta Lan Osasuneko Institutuak egindako ur-analisien emaitzak; Turismo eta Merkataritzako zuzendari orokorraren 533E/2016 Ebazpena, *Kastinekoborda* inskribatzen duena Nafarroako Turismoko Erregistroan; Nafarroako Gobernuak eman dituen baso-aprobetxamenduko baimenak —S.A. eta J.M.S.i—.

Gai zerrendatik kanpo, presazkoak direla aho batez aitortu ondoren, gai hauek aztertu dira:

1. Idazkariak irakurri du Nafarroako Gobernuak bidali duen lankidetzak hitzarmenaren zirriborroa, Udalaren Plan Orokorra egiteko. Udalabatzak aho batez erabakitzen du:

1. Hitzarmenaren eduki osoa onestea.

2. Akordio hau jakinaratzea Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako Departamentuari.

2. U.B.E.k aurkeztu zuen hiri-jarduketarako plan berezia, Iturengo 2 poligonoko 920 eta 537 lurzatiei dagokiona, 920 partzelako etxebizitza handitu ahal izateko. Agirian sartua dago herritarrentzako partaidetza-plana.

Arkitekto aholkulariek egin duten txostena irakurri du idazkariak.

Jarraian, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legearekin bat etorriz (7, 61, 92.5, 98.2, eta 74. artikulua), aho batez erabakitzen da:

1. Onestea hiri-jarduketarako plan bereziaren herritarrentzako partaidetza-plana, Iturengo 2 poligonoko 920 eta 537 lurzatiaren eremuari dagokiona.



ITURENGO UDALA
(Nafarroa)
31745

2. Hasierako onespina ematea hiri-jarduketarako plan bereziari.
3. Jendaurrean jartzea espedientea hilabete bateko epean, nahi duenak aztertu eta erreklamazioak aurkez ditzan.
4. Erabaki hau jakinaraztea sustatzaileari eta mugakideei.

Javier Bereauk ez du erabaki honetan parte hartu.

14. HERRIAREN TXANDA (GALDE-ESKEAK).

Ez da galderarik egin.

Eta bertzerik ezean, 21:30 direnean, alkate andreak bilera akitutzat eman du, eta nik, neronek, idazkaria naizenez, ziurtatzen dut.